

# Liburu irakurgarri bat

# DEMOKRAZIA

## Eskubidea eta erantzukizuna

Hitzegiteko eta erabakitzeo eskubidea duten guztietatik, gehienek erabakitzen dutenaren arabera jokatu behar dugula talde-bizitzan eta herri-bizitzan, idazten gennan lehengoan.

Gehiengoaren iritzian oinarritzen da demokrazia.

Jakina, taldeari edo elkartei edo herriari ez zaio unero edozertaz iritzirik eskatzen. Taldeak, elkarrekin, herriak bere agintariak, bere ordezkariak aukeratu ohi ditu epe jakin baterako. Baziakideak eta herriakideak ordezkariak aukeratu aurretik eskaini zuten egitarau nagusi bati eman diote bazezkoa ala ezekoa.

Ordezkariak badute lehendik taldeak edo elkarrekin edo herriak oinarritutako oinarritzko araudi bat. Oinarritzko lege horren barruan zehatu eta mamitu behar dute agintea hartu dutenek herriari aurrez agindu ziotena.

Komunikabideak eta politikako alderdiek salatu ohi dituzte agintean dihardutenen zabarkeriak eta jauntxokeriak. Aipatu bi era hauen bidez, agertu ohi du herriak, bere iritzia eguneroko bizitzan eta borrokan.

Herriaren etorkizunerako joan-etorri haundiko erabakia hartu behar dutenean bakarrik eskatzen diote herriari bere iritzia, referendumen bidez, epe jakinerako hautatuak izan diren agintariek.

Agintean denaren arriskurik haundienetako komunikabideak eta politiko alderdiak islerazte da. Bestalde, ordea, hori da hain zuzen ere aginte-aldia igarotakoan hankaz gora amiltzeko malkarrik labarrena.

Epe jakinerako aginpidea eman die herriak bere ordezkariak. Gaur onartuak izan diren gizonak bihar gaitzetsiak gerta daitezke. Herriak jarri ditu eta herriak kenduko ditu.

Demokrazia ez da gaur goizean sumatu. Batzarre Nagusietan erabaki ohi ziren garai batean, Euskal Herria, gizarteko gorabeherak. Zestoako udaletxeak oraindik orain gogorazi digu lehengo euskaldunen ohitura hori. Herri bakoitzeko alkateak bazuen, Zestoan adibidez, bere jarleku. Honelaxe bilzten ziren, han eta hemen, Euskal Herriarekiko erabakiak hartzen.

Gizonaren nortasunean, askatasunean, izaeran, oinarritzen da demokrazia. Abereek ez duten ezagueria bat badu gizonak. Gizonagan sinetza eskatzen du demokraziak. Ni ez naizela beste inor baino gehiago pentsatzea. Nere iritziak ez duela bestearen baino gehiago balio uste izatea. Besteari bere iritzia agertzen uztea eta ager dezan laguntzea eskatzen du demokraziak.

Eta honetan ez dira erabat garbi demokrazia izeneko herriak berak ere. Dirudunen eskuetan dira komunikabideak neurri haundi batean. Gizon bakoitzak bere adimena eta bere irizpidea lantzeko dituen erraztasunak edo zalantza erdiraren arabera dira hein haundi batean. Irakaskuntza bera haundi txikien kioskari eusteko eran jarria da.

Demokrazia giro jatorria maila eta leku guztietara zabaldu behar dugu: familiara, taldeetara, elkarrekitara, irakaskuntzara, eliza, herriara...

Baina ez dezagun ahanzt, demokraziak erantzukizun haundia jartzen diola bakoitzari. Gauzak ezagueraz egitea eskatzen dio, jakinaren gainean egitea alegia. Gizonki jokatzeko eskatzen dio. Ez jakintasuna eta ardurarik ez uxtatzea, hain zuzen ere.

Eskubideak berekin du erantzukizuna. Erantzukizunak berekin du eskubidea. Elkarren utzarlagunak direla esan ohi da.

Batzuen iritziz gure herriaren aberasgarri, beste batzuen iritziz gure herriaren katargarri, ukatu ezina da halaz ere gure garterian marxismoak dagoeneko utzia duen zatirra.

Hots, Maspero-k argitaratu berria duen liburu hau argi-turri gerta dakiok irakurleari; eta zinez gomen-dagarria dela esan daiteke («Les marxistes et la question nationale», Haupt-Lowy-Weill, Ed. Maspéro).

Egileek garbiak aitzortzen duten bezala nazio-arazoa ez da banako honetan osoki aztertuta izan; eta beste bigarren bat iragartzen da segidarako. Alde batetik marxisten jokatibide URSSeko iraultzaraino bakarrik ikertu dira. Eta bestetik Europatik kanporako nazio-arazoa eta juduena ez dira bidenabar baizik ukituak izan.

Haupt-en lanak, halere, oso gauza irakurgarriak dakazki. Marxisten izkribilduma badago batetik (Marx, Engels, Kautsky, Rosa Luxemburg, Renner, Bauer, Strasser, Pannekoek, Stalin, Lenin, Connolly), arrunt egokia eta aberatsa. Badaude ere, hasteko eta bukatzeko, Haupt-ek eta Lowy-k prestatu dituzten lanak, biak mamitu eta intez resgarri. Eta aipatzen den bibliografia, azkenekorik, ugari dator, eta ikasi-nahien gidari on.

Sineskeriatan erori gabe bai G. Hauptek eta bai M. Lowy-k, ikuspegi desberdin xamarrik izanik ere, onartu egiten bide du marxismoaren ekarria. Ez bedi irakurlea Paris-ko irakasleok kontra gogorren aurkitzeko beldur ibil. Ez dago horrelakorik. Lowy, batez ere, oso marxismoaren aldeko agertzen dela iruditzen zait. Mami hitz gutxi-rra bildu nahi izatekotan, zer ageri da liburuan? Oro har, zer esan liteke?

Lehen lehenik ondorio hau, nik uste: oso gogoangarriak direla «les silences marxistes sur le problème national» (Haupt, 14). Marxek ez zuen inoiz nazio-arazoa sakonki aztertuta. Zergatik ez? Nazioak burgesiarekin sortu, eta burgesiarekin amaierakin suntsitu ere egingo zirela sinetsita, marxismoaren sortzaileek ez zuten nazio-arazoa sekula zinez hausnartu. Nazioaren saillean oportunistak izan ziren Marx eta Engels: «(on trouve chez eux) des indications dérivantes, troublantes, contradictoires» (Haupt, 12). Ez zuten bide bakunik markatu: «On ne trouve chez Marx ni une théorie systématique sur la question nationale, ni une définition précise du concept de "nation", ni une stratégie générale politique pour le prolétariat dans ce terrain» (Lowy, 370). Honi buruz batera mintzo dira guztiz Haupt eta Lowy; gure Azurmendi eta Garate bezala.

Haupt-en hitzez esatekotan, «Marx eta Engels bazterngaitz txiki horien aurrean zinetan jartzen dira, prestatuta duten hazkunde-hildo bakar horretan ez baitira aisa egokitzen».

Hori dela-ta, Kautsky-k berak Marxen ideiak zaharkituak eta «ganditu beharrik» zirela uste zuen 1896az geroztik! (Haupt, 21). Gure arteko batzuen ortodoxi-nahia ez da beraz oso berrazalea.

Ondoko urteetako kondairak ongi frogatu duenez (eta honi buruz askoz ere luzeago izan liteke Lowy-k 390-391 orrialdeetan dakarren hutseginean lerrokada) behin eta beriz nahastu izan dira Marxen ondokoak, maisua bera bezalaxe, abertzale mugimenduen funtsari eta etorkizunari iriztean. Ia beti sumatu uste izan dute, Kautskyk bezala, «abertzaletasuna»-ren atzean (beti «abertia» eta «abertzaletasuna» horrela, Marx-engandik) herriaren nahia ez baina «gainbehera doan burgesiareko joko» baizik ez dagoela. Hauptek ongi dioenez, marxistek askotan pentsatu izan dute abertzaletasuna «contamination» hutsa dela, «kutsadura» hutsa, edo-ta pé-né-tration d'éléments petit-bourgeois dans les rangs du mouvement ouvrier» (Haupt, 38). Gutxitan sinetsi dute besterik.

Honi buruz oso harrigarria da, eta oso interesgarria ere bai, Polonia-ri R. Luxembourg poloniarrek hartu zuten bidea. Zernahi esanagatik ere Kondaira funtsean behin eta beriz gertatzen eta arra-gertatzen baita! Nork ez du gaur bere inguruan ezagutzen R. Luxembourg-en egoeran dagoenik? Nork ez ditu aurkitzen, oso osorik, Strasser eta Pannekoek-en ideietan, mila paperetan iraku-

riak dituen leloen ebartzun xehea?

«Urteak joan eta urteak jin», ordea, eta abertzaletasunaren indar gaitza beti hor, eskemen nahask; beti ere langile-burruka «hutsak» ortodoxoen eta kutsatzen, marxista ortodoxoen esanak abertzale arazoa duten herrietan ukaturik gertatzen, eta beti ere azalpen herri baten zai.

Eman ote zuen erantzun hori Leninek? Puntu honi buruz oso desberdin agertzen zaizkigu Haupt eta Lowy irakasleak. Bigarren honen ustez, bai; gutxi gora-behera erantzun egoki bat eman zuen Leninek marxismoaren barruan. Lehenengoren ustez, berriz, Leninek berak «taktikaz» eta jukutiaz esan zion «bai» abertzaletasunari; ez filosofiko-osotasunean. Abertzaletasuna klase-iraultzaren «détonateur» (59) bat izan daitekeela ulertu zuen Leninek. H. Carrère d'Encausse-k dioenez, «nazio-arazoez arduratu zen Lenin, bai; baina, gure honetan, indar lehortzaile bat sumatzen zuelako» (59). Lenin, hitz batez, oso marxista gelditu zen: nazioak ez du, honen iritziz ere, berezko eskubiderik; baina klase-burrukaren azkartzaile izan daitekeen aldetik eta neurrian, bultzatu beharra da.

Lenin, hitz batez, Marx bezala, aurreko egoeran kokatu zen: nazio-arazoa ez da, izan, ez bererizirik. Abertzaletasuna ere berriz.

Batzutan aipatu izan ditut nik «austro-marxistak». Beti harritu nahi gure marxistek (eta ni ez naiz horietatikoa) Otto Bauer eta «Eklialdeko marxistak» gure artean ez ezagutarazteak, edo maizago ez aipatzeak. Zergatik ez? Haupt-en liburuan agertzen den O. Bauer oso

interesgarria da, ene ustez; eta bigarreneko litzateke hobeki ezaguna izatea. «Absurdistan»-go Errepublikan honetan, ordea, maiteago eta ezagunago ditugu jendeak R. Luxembourg eta Strasser, Renner edo Bauer baino...

Gauza bitxi eta jakingarri batzuk aipatuko ditut bukatzerakoan.

Liburu honetan bereziki agertzen dira Engels eta euskaldunak bizpahiru lekutan. Ageri denez (eta euskal marxistek orain arte esan ez zigutenez) oso irizpide txarra zeukan Engelsek gutuz. Hegoaldeko eslaboak, breitoiak, eskoziarrak eta gu euskaldunok, «Kondairatik ateko herrien artean» jartzen gintuen. Hots, beti Engelsen hitzez esateko, herri horiek «behin eta berriz gertatzen dira Kondairan, zeharo itzaldu edo des-nortu artean, kontra-iraultzaren aintzinduri itxu; zeren-eta berioien izatea bera Kondaira-iraultza nagusiaren aurkako oihua baita» (Lowy, 374). Ez gemenik Engelsek horrelakorik idatzia zuenik; baina orain hobeki ulertzen dugu «ortodoxo» batzen iritzia!

Engelsen ustez (Lowy, 390) gu euskaldunok «nation réactionnaire par essence» gara!

Beharrik, Lowy gure alde mintzo da. Baina, irakurleak esan ditzakeen arrazoiengatik, ematen dituen arrazoiak ez ditut honera ekarriko. Ondokito! Milla esker antz, dena dela, Lowy irakaste hori!

Hobe honela, gainera. Jakin-min horretan besteren batzuek liburuaren argi irakurriko baitute. Eta, zinez, horixe bailitzateke denontzako onurakorrena.

LARRESORO

# Konzejaltzarako Hauteskundeak

Hil honen 12an presentatu zen Korteten, Madrillen alegia, Erregimen Lokaleko legegai berria. Hainbat gauzaren artean konzejalako aukeratzeko eraz hitzegingo da.

Gauzak ondo ateratzen badira (eta oker ateratzeko arrazoiak ez da) demokratek espero eta nahi duten bezala, datorren urteko Urtriallean, bakoitzak bere gustuko konzejalako aukeratu ahal izango ditu, gustokoak presentatzen badira behintzat.

Itsu da saguxarra. Ez du aurrean duena ere ikusten. Entzun, ordea, dena entzuten du. Baita ahapean esaten dena ere.

Nonbait... noizbait... NORBAIT kontzejaltzarako asmtan dela jakin du. Etorkizunari begiratu behar omen zaio. Udaletxeko jarlekuean garaiz esertzea beharrezkoa omen da: indarrak berdintzeko, herrigintzari begiratzeko eta batez ere gero-ra izan dezakeen indarragatik.

Bide berria aukeratu duen Portugalen dugu Udaletxeek izan duten garrantzi eta eraginaren ispilurik garbiena. Zer jazo edo gertatu zaie ardurarik jarri ez duten alderdiei? «Movimiento Democrático Portugalen»-en eskuetan dira Udaletxeak eta Alderdi Sozialistak lortu duen indarra ikusirik hauteskunde berriak aldarrikatzen ari da.

Oraindik nahiko astirik bada horretarako. Bienbitartean parte hartze aldekoak eta ez hartze aldekoak gorpuzten ariko dira, noski. Hala uste du saguxarrak.

Baina inoiz entzun izan dituen

zenbait gauza ezin ahanztu ditu. Ezin ahanzt dakiok langileari gertatutakoa. Noizbait entzundako hitzok gogoratzen zaizkio. «Nork gidatzen du langile mundua? Eskuetatik joan zaigu beste norbaiten onerako».

**Gure erruz!** oiher egiten du saguxarrek.

Inork ez biezagun galdia egunen batean «Nork gidatzen ditu herria eta udaletxeko gorabeherak. Joan zaigu eskuetatik txoria».

**Gure erruz!** erantzungo dut orduan ere.

Saguxarra bera ere prest legoke leku horretarako bixta haundiagoa balu. Baina nora jo duen bixta apurrez? Kontzejalaren aukian esertzeko ordez alkatearen jarlekuan esertzen hasiko litzateke, agian, egunen batean. Nahiz eta oharkabean ez dagoekin aukian jarri, behar bada ederretsi egingo lioke. Nork jakierazi orduan?

Ez. Hori ez duk saguxar baten-tzat tokia. Koba zuloan dingilizko la egotea dagoiko saguxarri. Handiki entzungo 'ditu kanpoan gertatzen diren gorabeherak. Esaten dena entzuteko bakarrik da gauza.

Beste ezertarako ez du balio, Begi bista hobearen dutenentzat uzten ditugueriko leku hoiak. Izan ere hain da itsu!

Baina denak ez dira ni bezalakoak, Urrutira ikusten duen jendea ere bada, zorionez.

SAGUXAR

# zeruko ARGIA

EUSKALDUN ASTEROKOA

EGIZU HARPIDE BERRI BAT  
BIDAL TXARTEL HAU BETETA

Izen-deiturak \_\_\_\_\_

Kalea \_\_\_\_\_ Zenbakia \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ (Prob.) \_\_\_\_\_